

Noiz?

TXILLARDEGI



ARRAZOIN burokratikoengatik. 'Seguridad Social' delakoarekin harremanetan jarri behar gertatu zait egun hauetan. Donostian hori; Donostiako bi bulego nagusitan.

Nire jarrera desegokia zela somaturik ere, euskaraz hasi naiz batean eta bestean. 'Harrera' bulegoetan. Eta biotan eman behar izan dut amore: «Perdone: no le entiendo». Eta, jakina, nik euskararomano erradikal honek, erdaraz hitz egin behar izan dut.

Gai hau aspergarria da, badakit, badakigu euskaldunok. Etsigarria ere bada. Jakina. Baina zer nahi duzue? Legetasunetik at bizi ezazten gaituzenez, esan nahi behar bezalako. Instituzioek barre egiten diote legetasunari.

1982ko '10. Legea' irakurriko dizuet. 'Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera': «Art.6.1 — Se reconoce a todos los ciudadanos el derecho a usar tanto el euskera como el castellano en sus relaciones con la Administración Pública, y a ser atendidos en la lengua oficial que elijan».

«Art. 5.3 — Los poderes públicos garantizarán el ejercicio de estos derechos, en el ámbito de la Comunidad Autónoma, a fin de que sean efectivos y reales». Hortaz, zer?

Badakit: «hay que ir poco a poco»... Nork sinets ezazko digu, ordea, hamar urte pasa ondoren. 'Harrera' postuetarako bederen euskaldunik oraindik topa ezin daitekeenik?

Gauzak argi eta garbi esan behar dira: Agintean *bost axola* zaio euskaldunen eskubidea. Administrazioa euskal mundutik at bizi da, erabat, frankismoaren garaian bezalaxe. Behin eta berriz, 'ahaztu' egiten zait herri honetan euskaldunok euskaraz bizi nahi dugula.

Autodefentsan

HASIER ETXEBERRIA



QUEBEC aldean argi euki zuten hasieratik: hizkuntza gorde nahi bazen, lehendabizi politikariek erabili beharko zuten frantsesa eta, bigarrenez,

iragarki eta kontsumoko gaien azalak frantsesez idatzita beharko zuten egon. Ezinbestekoak ziren bi baldintzok hizkuntzak aurrera egingo bazuen.

Hemen ere behin eta berriz esan dira halakoak, baina ahuntzaren ezula gertatu dira egunoroko praktikan. Hau dela eta, baimena ematen badidazue, proposamen arrisksuak bat egin nahi dizuet, euskaldun erreale izan nahi dudan alde honetatik. Estrategia korapilatsua gerta liteke, bere barnean hainbat kontraesan bai baititu, baina gauzak dauden eran, eta egunoro ikusten dugun adar jotze monumentalaren aurrean, bi eskubide erabiltzearen aldarrikapena egin nahiko nuke hemendik. Bata hauteslearen eskubidea da eta bestea kontsumitzailearena.

Lehenengo eskubidea erabiliz, euskaraz ez dakien politikarik daraman zerrendarik ez hautatzea proposatzen dut. Hemen politikarik bizi nahi duten guztiak egin behar dute euskaraz. Pasa daitezela euskaltegiak.

Bigarren proposamena kontsumitzailearen eskubidetik dator. Ez erosi euskaraz iragartzen ez den produkturik. Ez sartu bere izena euskaraz ez daukaten dendetan. Ez kontsumitu gure euskalduntasuna aintzatzat hartzen ez duen ezer. Hitzak alferrik direnean, akaso politikoak eragingo ditu aldaketak. Eta ez kezkatu ihardura horretan kontraesanean bat sortzen bazuzu. Gosez eta higuinez hil nahi ez baduzu, erdara hutszko produktuek ere erosi beharko dituzu eta, baina ez kezkatu, zuk zeureari cutsi. Egin kanpaina, zabaldu mezu... eta agian aldatuko ditugu gauzak.

Ondo dakite hori Castilla aldeko hipernazionalistek. Eroski harantz joan denean, euskarazko hitzak produktuen azaletatik kentzeko eskatu omen dute, gaztelaniaz ere bazeudenean. Min egiten zien, zienta euskaraz ere idatzita ikusteak. Koiatuak.


HEMEROTEKA

• ABC

Sozialismo nazionalista

Erregimen felipista desmuntatzeaz hitz egiten dugunean ez genuke gure nahia—desira egocera bat izatetik haratago ez doana—PSOEK eraikitako egituretara mugatu behar. Aipatu behar da horrek azken urteotan izan dituen aliatuek—euskal eta kataluniar nazionalistek—beren eraginpeko eremuetan PSOE-rena baino askoz jarduera ausartagoa izan dutela trantsizio garaiko proiektu demokratikoari amaiera eman eta luxemburgtar harrokeriaz jantziako mexikar kutsuko gobernu molde bat ezartzeko. Erregimen felipistaz mintzaten bagara, ez dezagun erregimen pujolista alde batera utz, ez eta berorren osagarri diren euskal nazionalisten erregimena ere.

Edozein proiektu antiliberale bezala, alderdi hegemoniko bat duten erregimen neototalitarioak eraikitzea ekinbide pribatua deuseztatzean edo hori ekinbide publikoaren, hots, politikoaren



GALLEGO & REY / DIARIO 16

mende jartzen oinarrituta dago. Azken batean, helburua nazionalismoaren ezarpen formula kolektibistak izatea da eta horretarako nabiazeak da sozialista motako politika eta ekonomia garapen bat izatea.

FEDERICO JIMENEZ LOSANTOS

• Diario 16

Arrotzek gobernatu nahi dute

Edozein abertzalearen erlijio mota bat da. Orain, mendea eta milurtekoa bukatzeraz doazenean—baita askoz lehenago gobernu

bera ere—egungo Europan bakana den perbertsio erlijioso bat sortu da: Estatua desegin nahi dutenena izatea horren gobernu. Hori abertzalearen eta sezesionismoaren erabateko garapena iruditzen zait. Ez diegularo horrelakorik egiten utziko, baina nazionalista horiek kapaz dira Madrileren etorri, denok gobernatu eta gero 'Puerta del Sol-etik' bertatik independetzia aldarrikatzeko. Niri bost axola espainolar izan nahi duten ala ez. Hori beren arazoa da. Nire arazoa arrotzek—halakotzat hartzen dituzte beren buruak—menpera nazaten uztea ala ez uztea da. Utz ditzagun alde batera farisaukariak.

Urteotan guri dirua kentzen aritu dira. Eta orain odola aztertu nahi dute. Hemendik hilabete 1'erdia Rh negaibo dugunentz begiratuko dutenak gu gobernatzen egotea besterik ez genuke behar. Hemendik aldarrikatzen dut nazionalistekin koalizio bat egiten badute gobernaezina izango naizela. Ez dut onartzen, asteburuetan nazio bat direla esan eta autodeterminazioa eskatuko badute ere, aurrekontuen boltsa ikusi orduko katuak balira bezala horren gainera beren buruak botatzen dituzten haundiki horiek inolako aginterik izan dezaketen goardia, zerga eta soldaduen gainean.

RAUL DEL POZO

ZUZENDARIARI

Enkiklopedia universal nahiago euskaraz baino, frantsesez edo espainolez

Bakhoitzak ba daduzka bere gustuak eta eritziak, zeinak ez duten zertan bertzeren opinionekin eta hobbyekin syntonian ethorri behar.

Enkiklopediak, neure aburuz, kontsultarako tresna batzu dira darabilguzenak dudako eta zalantzazko momentu puntuetan. Orduan, bada, interesatzen zaidana da—eta bertze edonori ere interesatu behar zaiekoena datek—enkiklopediaren kalitate konzeptuala. Kalitate konzeptualez gain baina baita ere kalitate lexikala, syntaktikoa, orthografikoa, redaktatze gardenarena eta etcetera luzeago bat.

Baldin uste balu euskaldun batek enkiklopediarrozzak (aleman, ingeles, frantses, ita-

liano, espainol... edo bertzek) kalitatez hobeak direla geure aurtokonoak baino, zer behar du egin? Sakrifizio eta oinaze patriotiko antuz euskaldun enkiklopedia esoterikoa erosi ala ostera patrioterik utzirik enkiklopedia universal homologatuxe kalitatezkoak erabili?

Zerk kalitate luke adibidez endomania lexikal falstu baten eraginez enkiklopediak ekhar baleza radio barik (irritai), photo barik (argazki), avion barik (hegazkin), lapitz (arkatz), arkipelago (uharteria), skultore (zizelkari), phrase (erranaldi), letra minuskula (zehea), atheismo zientifiko (zientziako jaungoikogabatasuna), heptagono (zazpierzadun), spezial (berezi), katedratiko (katedradun), edukatione (heziketa), trapezista (trapeziolaria), transporte (garrario), neba (anaia), sekues-tratu (bahitu), evitau (ekidin) advertitu (abitu) invisible (ikustezin), derrigorrez edo batzazpada (ezinbertzean), vokabulario (hiztegi), kriterio (erizpide), provisional (behin behineko), ofizio (ogibide)...?

Eta zer kalitate orthographiko luke enkiklopedia ekhar lezakeenak video (bideo), geo-

logia (jeolojia), rombo (erronbo), metallurgia (metalurgia), vodka (botka), hobby (jobi), vitrina (bitrina), imperio (inperio), kurva (kurba), universal (unibertsal), paella (paella), konsulta (kontsulta), patruilla (patruila), struktura (estruktura), inversione (inbertsio), pneumatiko (neumatiko), perfil (perfil), puzzle (puzle) shampu (espainol champu-tik txanpu), onhartu (onartu), esploradore (esploradore), Egipto (Ejipto), virus (Birus), Belgika (Beljika), Bilbao (Bilbo), testu (testu)... Zertarako deformatione irrational eta absurdook???


Nik nahiago erdaraz (aleman, ingeles, frantses, italiano, espainol...) kontsultatu ezen ez neure referentzia kultural orthographiko eta lexikalak aldrebestu eta porroki. Pseudopatriotismo antzu, mortifikante, suizida, groggy erazle, visionario, retrogrado, akultural, arhythimiko, inhomologable, automulitante, apathiko, herabe... agonikoz aski. Ask, balle!!!

ERRAMUN GERRIKAGOTIA

Munitibar (Bizkaia)

GAIA JARRITA

Ikastolen batzarra



Herri langitzak neutralizatzen batzuek daukaten presa! zena honetan bide txarrena dugu batasunik eza zenbateraino gauden indartsu esaten ez da erreza baina gazteen ametsen giltza herriak eduki beza ez da dirua, herria baizik Ikastolaren babesa.

AITOR SARASUA

Egunkaria

Batzorde Partekidua: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJREN IKUSKATZEA BIDERATUA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendariak: JOAN MARI TORREALDE

Gerentse: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: INAKI URRIA

Zuzendariordeak: LUZIAN ETXEHARRERA

Zuzendari Komertzialak: JUAN INAZIO HARTSUA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitateak: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Taltira: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilhoak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitate eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. Lezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuna. / 48002 Bilbao / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila. / 64105 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11